

Lutxo Egia

**Hiri hori da hiri hau**



zaldiarri·8

© 2017 Lutxo Egia  
© Azala eta marrazkiak: erramun mendibelanda  
© Edizio honena: HEA. Gabriel Arestiren etxea

2017ko uztaila

Maketazioa: Gráficas RD  
Inprimaketa: Gráficas RD

HEA Kultura elkarte. G. Arestiren etxea  
posta@eakopoesiaegunak.eus  
www.eakopoesiaegunak.eus  
Ea (Bizkaia)

# Hiri hori da hiri hau

Lutxo Egia



*“Hiri bori da biri hau” Lutxo Egiak  
2016ko Poesia Egunetan emandako  
bitzaldia da.*

***Hots grabatua** Haizea indartsu.*

***Hots grabatua** Suediako bafore bateko turuta, burbiltzen. Tarteka isildu eta haizea.*

***Hots grabatua** Kalatxoriak. Turuta isiltzen eta kalatxoriak nagusitzen.*

Hotzak berdintzen ditu Boras eta Malmo.

Hiri hori da hiri hau.

Lulea. 34 gradu zero azpitik. Hiriko hoditeria izozturik.

Upsala. 28 gradu zero azpitik. Hiriko hoditeria izozturik eta gorpu bat katedral gotikoaren alboan.

Gottenburgo. 23 gradu zero azpitik. Jim Jarmuschen errodaje-ekipoa izozturik.

Jarmuschek senti dezake gaur bere filmetako pertsonaia bat izan litekeela.

Genoa aukera hobea zen.

Han ere badago txatarra flotagarririk.

Eta Livornon ere bai.

Jarmusch hoteleko ohean etzan da  
eta Spotify zabaldu du bere Mac txikian.

Rossette.

Ace of Base.

The Cardigans.

Hammerfall.

Ta-ke a chan-ce on me...

Take... a chance... on me...

Take a chance on me...

***Kanta:** Take a chance on me...*


***Hots grabatua.** Kalatxoriak.*

***Hots grabatua.** Fabrikako sirenaren hotsak  
entzuten dira. Lanera dei.*

***Hots grabatua.** Fabrikako hotsak entzuten dira.  
Metala.*

***Hots grabatua.** Polizia sirenak entzuten dira.*

Herdoilaren tristeziarekin batera  
ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da  
eta bere sabaia laino baso bat  
non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia



"Burua galdu duena poeta da", 48 x 30 cm. 2003



*Hots grabatua. Abotsak entzuten dira poliziarenak.*

*Hots grabatua. Pelotazoak.*

*Hots grabatua. Tiro-botsak.*

*Hots grabatua. Sirena gebiago urrun moteltzen.*

Hots hauetako batzuk lekutu egin dira eguneroko bizitzatik, desagertu. Edo lausotu behintzat. Hiri-geografietako hotsak dira. Gaur bezalaxe berriro azaltzen direnean, deiadar egiten digute. 11 urte nituelarik itxi zuten Etxebarria siderurgia eta harekin batera hamaika hots joan zitzaizkidan. Fabrikako sirena zen adierazgarriena, radio izugarri zabal batean entzun zitekeen.

Paisaia begia da. Baina baita belarria ere.

Eta sudurra ere bai.

Bizi nintzenetik ez oso urrun, atelier ttiki bat zegoen, bateria elektrikoak fabrikatzen zituzten. Ondotik pasatzean sufre usaina barruraino sartzen zitzaidan. Usain hori betiko joan da, beste usain asko bezala. Nire oroimenean gelditu da berban betikoturik. Usainak dira zailenak atxikitzen paisaian.

Paisaia, ikusiko dugunez, ideologia da. Baina paisaia transitoa ere bada. Formateaturik gaude ikusteko paisaia modu estatiko batean, baina paisaia tolesek eta geruzek osatua da; paisaia,

espazioari eragiten dioten esperientzia guztien palimpsesto moduan eratzen da. Lekuriko hots eta usain horiek geure geruzak dira. Eta horrek guztiak gu osatzen gaitu eta, era berean, gu geu gainditzen gaitu.

Bernardo Atxagak itsasadarrarekin lotu izan du Bilbo, ziuataea. Haren geografia afektiboa barkuen presentziari lotua dago, mareari, portuari. Ekonomia fakultatetik ikusten zuen kargaontzi bat itsadarrean behera, Abrarantz, eta bere buruari galdetzen zion Valparaisora ote zihuan.

Atxaga memoriatik ari zaigu.

Izan ere, portua duten hiriek memoria daukate, edo eduki beharko lukete.

Mendeetan kostaldeko hirien arteko harremanak kabotajearen bidez gauzatu dira eta memoria portuetan atxiki.

Baina memoria egun oso afera delikatua da, gizarte hau ezeztatze sistema erabateko bihurtu da.

Eta hala ere, ezinbestekoa idazlearentzat. Memoria deitzen dugun hori, milaka mikro-istorioz ehundutako sarea da. Eta horrekin osatuko du paisaia deitutako espazio konpartitu hori, espazio kolektiboa. Iñigo Aranbarriren esanetan,

*«nabita ez besteekin bizi dugun, bizi izan dugun mundu bat, imaginario baten osagarri. Paisaia, espazio bat elkarrekin bizitzea da».*


Kostaldekoko hiriek bezala, literatura hiriek ere eskertzen dute kabotajea, tokiz tokiko ibiltze hori, Leopold Blommen paseatze hura Dublinen barna.

Zeren eta ibiltzea baita historikoki gizajendearen lehen ekintza paisaia eraikitzeko.

Eta guk geuk, gaur, paseatu egingo dugu.

Eta promenada horretan hiriko erdigune, sinbolikoa bederen, bihurtu den Guggenheim museotik abiatuko gara. Izan ere, museoaren gestazioa utopia baten diseinua da, eta gure literaturan, eraikitzearen ostean etorritakoa haren inguruan harilkatu da tentsio dialektiko moduan.

Gainera, museo ondoan *flâneur* bat proposatzen zaigu, kaminante baten estatua. Inork gutxi daki Ramon Rubial sozialista historikoa dela, oinez hirian barna, jaka amerikanoa soinean, itxura batean panazkoa. Agorafobia garaiaren marka den honetan, halako bulkada bat transigune bilakatutako espazio post-industrialean. Flâneurrak berak erakusten digu hiria ezin dela bere osoan atxiki, intermitentziak baino ez daudela, beti ere subjektibitatearen eremuan. Badu Miren



"Bilbo Gaiztue", 37 x 25 cm. 1991

Agur Meabek irudi bat itzel gustatzen zaidana: «*Hiria handiegia da, txatarrazko itsaso bat, talka eta talka*». Horrek, noski, ez du esan nahi hiriaren konplexutasunera hurbildu ezin gaitezkeenik.

Hiria bere konplexuan kale batera, pisu batera edo, are, gela batera ere bil liteke, George Perc. Utzizkotazue hitzalditik irteten une batez. Orain dela bost egun gertatu zitzaigun. Astelehenean. Oihu lazgarri batzuk entzun genituen Irunek eta biok goizeko zazpi eta erdietan. Ondoko pisutik zetozen, emakume bat. Pentsio ilegal bat da, imagina dezakezuen denik eta pisurik miserableena, bazterreko jendea bizi da, beraz subjektibitatea nire partetik, batzuk oso nagusiak, alkoholikoak, ionkiak, joan-etorrian ibiltzen dira, ez oso aspaldi beren gela itsuetan kozinatzen zuten su txiki elektrikoetan... Arrapaladan barne-patiora hurbildu gara. Zortzi metrora emakume hegoamerikar nagusi batek espantuzko keinuak egin dizkigu ahoa zabaldu gabe. Imintzioak. Zer ote? Hil ote dute inor? Zauritu ote da inor? Nor, baina? Jantzi gabe joan naiz ziztu bizian, larriturik. Zabaldu dit atea emakume gazte batek, dardarka, ez dut ezagutzen. Esan dit bere mutila gela batean dagoela baina ez sartzeko, eurak ez direla sartu, baina hilda dagoela. Ez dut ulertzen eta gelara abiatu naiz. Odol-putzu handi bat dago eta gizon bat buruz behera, itxura batean hilik. Ezagun dut gizona. Berehalaxe ertzain bi sartu dira. Gizonak 5 aste zeramatzan pisuan, denbora horretan agurrak trukatu dizkiogu elkarri. 60 bat urte botatzen nizkion, 45 zituela jakinarazi

didate. Alhokolikoa baina zulotik irteten antza. Hil ote dute? Bere buruaz beste egin ote du? Istripuz hil ote da? Hortxe utziko dugu, horixe azken hiri-geruza.

Beraz, flâneur baten lez ibiliko gara Guggenheim sinbolikotik abiatuta.

Museoa biziki inportantea da.

Haren kokapena zeren zorretan dagoen aski istorio ezaguna da. 1992. Foru Aldundiko Ogasuneko kargu politikoek eta Guggenheim Patronatuko arduradunek ez dakite non eraiki daitekeen. Gau batean, Thomas Krens La Salve zubipetik korrika ari delarik, agerpen epifanikoa izan du: museoa Pinillos nabieraren terrenuetan kokatu beharra dago. Alegia, amerikanoak erabaki du zein izango den hiriko *downtown* berria.

Museoak aldaketa abiarazten du, transmodernitatean murgilaraziko gaitu. Desindustrializazioaren zauriak ezingo dira industria berriekin itxi, irtenbidea ez dago eraikitzean, deseraikitzean baizik, Frank Gheryren deseraikitzean.

Metroa arteria berria da. Atxagaren itsasadarra, aldiz, argitu egingo zaigu eta, Bilboko erdigune berria, behinik behin, etorkizun oparoa prometitzen duten palmondoz beteko. «Lagun,

*emadan maitasun apur bat, auzolotsaz akabatutako eguzkien Bilbo honetan», idatzi zuen une hartan Koldo Jule Garai poetak.*

Baina hiri hori da hiri hau.

Museo itxurako oasiak edo oasi itxurako museoak, batek daki, desertutik libratu gaitu, desertutik, zeren itsasoa, itsasadarrean zehar luzatzen zen Bilbo industrialala, sikatua baitzen ordurako.

Eta badio Harkaitz Canok desertua zeharkatu egin behar dela. Eta Bilbon Atxagak zuen aspaldi zeharkaturik, Etiopiarantz, ziutatean barrena.

*«Eguileorren etxean sartu nintzenean», kontatzen du Atxagak, «munduaren gauzen erdiak konprenitu nituen. Haren sukalde popera sartu nintzenean eta haren sofa psikodelikoan jesarri nintzenean, iruditu zitzaidan ez bakarrik Bilbora joan nintzela, baizik eta beste planeta batera joan nintzela. Horregatik biburtu nintzen idazle».*

Abanguardien aterkipean, Atxagak Borobila eta puntua antzezlanara idatzi zuen 1972an eta, hari esker, ikusgarri bilakatu zen idazle moduan, non eta Bilbon. Honelaxe mintzo zaio Aresti Angel Zelaietari gutun batean: *«Leí anoche el teatro de ese Atxaga, que no sé quién sea. Por las señas que me das, no puedo localizarlo entre los que estuvieron*

*en "Hambre". Leí su artículo sobre versolaris en Anaitasuna, que no me pareció particularmente bueno, ni muy original. Esta obra es otra cosa. Si Atxaga hiciera estas otras dos obritas, yo me comprometería a que Lur lo publicara, y en caso de que por cualquier razón hubiera algún boicot, pues todo es posible en Granada y ya sabes que estos vascos están locos, yo personalmente correría con el riesgo de la publicación, pues creo que el asunto merece la pena».*

Hala ere, Atxagarentzat Bilbo ez da inoiz jatorri bat izan, «*utopia politikoa gauzatuko zen tokia*» baizik.

Hirurogeita hamarreko idazle gazteek, politika, kultura, hizkuntza eta bizitza berrasmatu behar dituen subjektu kolektiboa osatzen dute, eta haientzat hiria aritze hutsa da. «*Bilbao es un acto de existencia pura*» idatzi zuen Txabi Etxebarrietak.

Bilbo aldarrikatzeke gogoia darie. Aski esanguratsua Atxagak Mexikoko *La Jornada* egunkariari esandakoa: «*Siempre tuve muy claro que teníamos que conquistar Bilbao. Creo que en cierto modo lo conseguimos, ya que llevamos nuestra lengua del mundo rural a las ciudades y, al mismo tiempo, ésta se prendió de inmediato a la modernidad*».



Herria-Hiria. Hiri hori ere bada hiri hau. Hiriaren xerkatzean, Atxagak «*jende arruntaren eguneroko hiri-bizitzaren poesia*» sortzen du, haren poemek imajinario berria asmatzen diote hiriari.


Bilbo, beraz, Etiopia, desertua.

Eta Bilbo, era berean, Hamburgo, portua.

Badio Atxagak 2003an: «*Hizkuntzak sinesgarritasun arazoak planteatzen dizkit Bilbon bertan. Horregatik, Bilboz mintzatzen naizenean narrazio liburuetan, oro bar, Hamburgo deitzen diot. Bilbo, eszenatoki literario buts gisa, hiri debekatua da niretzat oraindik ere*».

Dakigunez, Atxagak alegiazko kronotopoen alde egiten du, idazleak berak infinitu birtuallak deituak, paisaia afektiboak non memoria bizirik dagoen eta idazleari hamaika mikroistorio agertzen zaizkion.

Egun detektibeek aise burutzen dute beren lana Bilbon. Ezpeldoi, Touré, Lanbas... Gaur aski erraz dirudiena, oster, nekeza bilakatzen zaio Atxagari. «*Cuando yo me puse a escribir no podía pensar en ningún camarero que hablara en euskera, ni ningún DJ*».



"Hemen ez da inor salbatzen", 40 x 25 cm. 1990

Atxagak ez du Bilboko utopia azken bururaino eraman. Baina hirian sortu da eta hiria aldarrikatu du. Hiriak, aldiz, ez dio neurriko aitorpenik egin, Bilbo Arestirekin dago hitzartuta. Koldo Izagirrek ere aldarrikatu du Bilbo, zeharbidez nahi baduzue, artikuluetan eta hitzaldietan gehienbat, baina beti jarri gaitu Bilbori begira:

(“Bilbo” poemaren bertso batzuk, Koldo Izagirre)

tren barik dago atxuri  
abando berriz urduri  
isilik dator grebaren hotsa  
bilbok ez maite neguri

errekaldean lizarra  
hari begira izarra  
mende honetan minbera dago  
euskaldunaren bizkarra

enkarterriko burdina  
errekaldeko turbina  
lanez indarrez osatua da  
bilbotarraren buztina

bikaina apaina liraina  
historiaren iraina  
bilbo hau bihurtua da bilbo  
odolusteko izaina

Izagirrek erronka egiten digu. Eta deiadarra, behin eta berriro, nondik gatozen.

Laurogeita hamarreko hamarraldian idazle ugarik egiten diote keinu hiriari. Edorta Jimenez, Amaia Iturbide, Javier Cillero, Manu Ertzilla, Pedro Alberdi, Andolin Eguzkitza, Joanes Urkixo, Unai Iturriaga... Bilbo guztien gan ageri da, baina balirudike lehenagoko zentralitatea galdua duela.

Mende berriarekin batera, hiria bere identitatea galtzen hasi delako ustea forma hartzen hasten da gure literaturan. Ideia horri irmo helduko diote, esaterako, Urtzi Urrutikoetxea, Sonia Gonzalez eta Paddy Rekaldek. Bilbori aurrez-aurre begiratzeak merezi du.

Paisaia ideologia eta transitoa da, baina ez da aski norbere subjektibitatea. Paisaia, sortzen eta nagusitzen diren errelatoak dira. Eta XXI. mendeko euskal literaturak, ikusiko dugunez, errelatu bat eraiki du Bilboren gainean, ez uniforme, baina paisaia bat marraztu du azken batean. Gertatzen da paisaia literario hori ez dagoela gizartean aski errotua, esan genezake hutsaren hurrengoa ere badela, baina hori ere ez da harrizkeoa kontuan hartzen badugu egun literaturak sortutako paisaiei gero eta gehiago kosta zaiela gizartean eragitea.

XXI. mendea 2001. urtean abiatzen da. Bilboko erakundeek prestigiozko arkitekto eta paisajistekin nahi dute hiria deseraiki eta berreraiki. Foster, Calatrava, Pelli, Isozaki, Legorreta, Moneo, Siza, Hadid, Stark, Balmori. Urte hartan, baina, Renzo Piano Pritzker saridun arkitektoari eskaini zioten Zorroztzurreko eta Olabeagako master-plana. Baina Piano garestiegia zen, eta bi urte geroago Saha Hadidi esleitu zioten. Bitarte hartan, erakundeak paisaia bestelakotu baten ahaleginetan aritu ziren. Zorroztzurre ordurako Manhattan zen (bide batez, aste honetan jakin dugu ezingo dela Manhattan izan, asteazkenean iragarri ziguten bigarren hiri-iraultza, zinegotzien hitzak, Elorrietan eta Zorroztzurren piszinak, hiri-hondartzak eta pasealekuak joango dira). Aldi berean, hiri-mapa berria zabaltzen ari zen Bilbo Zaharrera, hura ere izen eta guzti: Soho.


Manhattan eta Soho. Horren inguruan bibliografia zabala dago. *Wall Papers* hirien gida prestigiosuan antzeman daiteke prozesua.

Bilbo hiperrealismoan murgil eginda.

Bilbo New York da.

Azken zantzu literarioa, joan den maiatzean. *Bilbronx* ikuskizuna plazaratu zuten Loraldia jaialdian. Bilbo eta Bronx.

Hiri hori ere bada hiri hau.



"Fadoa Bilbonburgon", 40 x 31 cm. 1990

Simulakroaren eta imitazioaren kulturak bizi gaitu geu ere. Berdin da benetakoa edo kartoizkoa. Zeren, azken batean, simulakroaren kulturana bagaude, kartoizkoa benetako bilakatzen da.

Jon Alonsok imintzio egiten dio iaz plaza-raturiko *Hiri hondakin solidoak* liburuko pasarte batean. Irakurriko dut:

*«On Resurrección Maria de Azkuek Plaza Barria zeharkatu du, Bilbo sorario batek ez dio begiratu ere egin. Azkue ez da geldituko harik eta, plaza erdia zeharkatu duenean bi turista japoniarrek geldiarazi duten arte. Japoniar bikoteak bi argazki atera dizkio. Eta Azkuek oihukatu du:*

*—Txillardegi pushed me into the river! Txillardegi pushed me into the river!*

*Plaza Barriko kamarero batek azaldu dit:*

*—Azken bolada honetan denetarik ikusten ari gara: hiru Azkue, bi Krutwig, lau Koldo Mitxelena, Alfonso Irigoien bat... Herri hau enprendorez beteta dago. Honek, zerbait erakusten badu, ikonografia orain arte zer gutxi ustiatu dugun erakusten du».*

Noski, hiperrealismoa ez da imitazioa, nagusiki eraldatzea da. Izendatzea paisaia eraldatzea da. Manhattanek eta Sohok bazka behar dute, Zorrotzaurre eta Bilbo Zaharra hurrenez hurren maskaratuko dituen elementu ideologi-

koa. Gentrifikazioa. Gentrifikazioa lehenik eta behin ideologia da. Administrazioak eta inbertsoerek sortzen eta babesten dituzte ideiak, eta zabaltzen. Helmuru nagusi hiritarrek bere egitea izanik. Eta lortzen dutenean gentrifikazioa burutua da. Badago San Frantzizko kaleko mutur batean, ezagutuko duzue, La plaza de los tres pilares, hor dago *Peso Neto* izeneko taberna, *El Correo*-n behin eta berriz agertzen dena, beste batzuekin batera, zona degradatu bat hobetzen eta aldatzen laguntzen ari delako, ikurra. Orain dela hilabete batzuk tabernakoek bideo labur batzuk ekoitzi zituzten eta sare sozialetan zabaldu. Haietako batean, artista moderno itxurako gazte ilegorri batek disiuntiba jartzen du mahai gainean: «¿*Que quéreis, putas y yonkis o bares y hipsters?*» Bideoa berehala kendu zuten zirkulaziotik, nik artxibo moduan gorde dut. Hau gentrifikazioaren burutzea da, alegia, etorri berriak uste du bertokoa botatzeko eskubidea duela paisaiaren hobe beharrez, kasu honetan puta edo ionkia izateagatik.

Laurogeita hamarreko hamarraldiaren hasieran abiarazitako aldaketa, beraz, hiru planotan gauzatzen da mende honetako lehen urteotan: haragizkoan, sinbolikoan eta ideologikoan. Guztiek dute eragina paisaian; eta paisaiak dena xurgatzen du. Baita gure literatur paisaiek ere, berehala ikusiko dugunez.



Thomas Krensen agerpen epifaniko hartatik aurrera, Bilbo utopia baten saiatze bilakatzen da.

Utopia, ez den lekua, Tomas Moro errenazentistak baliaturik adierazteko gizarte ideal bat, gertagarria bainoago, desiragarria. Baina, gainera, Morok zehaztu zuen utopia desiragarri hura, utopia ona, eutopia zela. Eutopia. Eu hori *ona* adierazten du. Eta aurki orok bere ifrentzua nola, hala XIX. mendean John Stuard Mill filosofoak distopia terminoa ekarri zuen.

Beraz, eutopia: utopia ona, desiragarria; eta distopia, utopia txarra, kaltegarria.

Eutopia James Hilton-en Shangri-La paradisiakoa litzateke, betiereko zorientasunaren lurraldea, Frank Caprak zinera eroanda, *Galdutako horizontea*, gogoratuko duzue. Eta distopia John Milton-en *Pandemonium*, Infernuko hiria, *Paradisu galdua* poema narratiboa.

Eutopia eta distopia.

Eta azken hogeitun urteotan, bi topos horiek aritu dira elkarren kontra Bilboko iruditerian.

Eutopia, erakunde publikoek, hainbat korporaziok eta komunikabide nagusiek babestua. Eutopiaren abiatzea, noski, museoa eraikitze

sedukzioak zehazten du. Haren inaugurazioan, hauxe *New York Times Magazine* aldizkariaren azala: «*Esaten omen dute gaurregun ere badaudela mirariak..., eta handi bat, animaleko miraria, Bilbon gertatzen ari dela. Egon zara Bilbon? Ikusi duzu argia? Ikusi duzu etorkizuna?*». Eutopia martxan dago. Basamortua zeharkatu ostean, bizitza azkenean. Etiopia eta gero, eutopia. Eta bizitzaren sinbolo agente goardakoa, Puppy, Jeff Koons-en txakurra, urtaro orotan bizirik dauden 55.000 mila lorek osatua.

Bestetik, imaginario distopiko bat, sektore batzuek proposatua. Distopiaren ideia hau, seguraski, Garikoitz Gamarraren eta Andeka Larrearen *Bilbao y su doble* liburuan kristaltzen da hobekien. Edo Jorge Oteizaren honako hitz hauetan museoko arduradunei zuzenduak: «*Déjate de escrituras y chorradas. Mátalos. Yo te pago. Estoy escribiendo el ensayo Ya soy un asesino*».

Beraz, eutopia eta distopia. Hiri hori da hiri hau.


Eta zer gertatu da kasik 25 urte joan ondoren? Ba, gertatu da eutopia nagusitu dela. Eta unerren batean, nagusitu egin denez, utopia desiragarria izateari utzi dio. Utopia errealitate bihurtu da eta hiria halako *locus amenus* bat bilakatu da. *Locus amenus*-ek toki idilikoa esan nahi du latinez, eden moduko bat, autore askorengan agertu da toki imaginario gisa, agian ezagunena izaki Bocaccio-

ren *Decamerón* liburuko lorategia. Orduan, imaginario bat nagusitu da, paisaia bat nahi baduzue, Bilbo eredugarri bat, Bilbo erakargarri bat, marka bat, hirien mapa ikonikoan bere tokia daukana, eta imaginario hori hegemonikoa da. Eta hemonikoa diot Gramsciren zentzuan, alegia, hiritarrok zentzuko (*common sense*) ikusten dugu luzaro eutopiaren agenteek errealitateari buruz egindako definizioa. Eta ikusten jarraitu beharrean gaude geure burua zokoratuko ez badugu.

Beraz, *locus amenus* bat non bizitza zogarria izan daitekeen. Nahi baduzue, modan dagoenez, errelatu bat. Denbora luzean idatzitako errelatua. Irudi batez ari gara. Paisaia errelatua da. Frank Gheryk berak gaztigatu zigun: «*Mendi berdez inguratutako hiri gogor hau paradisuaren gertuen dagoen tokia da*». Bilbo, Hiltonen Shangri-la. Bakan batzuentzat, aldiz, Miltonen Pandemonium. Gutako batzuk ilusio bat marraztu dugu. Bilbo, komunitate baten ilusioa. Bilbo ez den Bilbo bat.

Bilbo fetitxea versus herritarren Bilbo.

Bilbo hau versus Bilbo hura. Eta tentsio dialektiko horrek, hirian girotutako narratibari dago-kionez behintzat, ardaztu egin du gure literatura azken urteetan.



"Santo Tomasetarako kartela", 37 x 32 cm. 1990

Eta hori hala bada, hauxe dugu galdera: nola agertu dute gure idazleek dialektika hori?

Berehala ikusiko dugu, baina lehenago Donostian egingo dugu inkurtsio ttiki bat.

Zeren eta hiri hori ere bada hiri hau.

Ramón Saizarbitoriaren hiria. Izagirrek badaki eta *Sur le pont Kursal* poemako pertsonaia bilakatzeko du: «*Sur le pont du kursal doa Ramon / le nez dans l'eau / tupust eginda eskatuz pardon / roman berriak dio jaramon*».

Donostia ez da Bilbo bezainbeste mudatu. Izagirrerentzat Donostiak, Bilbo ez den guztia edo Bilbo ez zen guztia edo Bilbok izan beharko ez lukeen guztia islatzen du.

(-rap doinuan- “Donostia” poemaren zati bat,  
Koldo Izagirre)

*gortearen udaleku  
hiritasuna debeku  
kupido motzen joek daukate  
sebastian zerutik gertu*

*erreginaren hondartza  
garbia eta apatza  
noiz hankapeko noiz eskupeko  
alaiki Easok dantza*

*perla polit biribila  
dendarien hiri hila  
ederrera iritsi ezin den  
guztiaren faksimila*

*izar zabarrak ortzean  
bakoitza bere bostean  
hiriak hiri izaten dira  
nortasun bat adostean*

*hondartza beti ospean  
berririk ez donostean  
madril txikia pozik bizi da  
postal txatxuen ostean*

*amarako barrikada  
pariseko karrika da  
gau edo egun hots egizue  
zatarron beharrik bada*

Gogora dezagun *Bilbo* poema: «*Bikaina apaina liraina / historiaren iraina / bilbo hau bihurtua da bilbo / odolusteko izaina*».

Pentsa liteke Bilbo eta Donostia trokel beretik ari direla egun.


Baina...

«...*biritasuna debeku; dendarien hiri bila; ederrera iritsi ezin den guztiaren faksimila; hiriak hiri izaten dira nortasun bat adostean; madril txikia pozik bizi da postal txatxuen ostean;*

*gau edo egun hots egizue zatarron beharrik bada*».

Ez, ez dago kolorerik.

Dena den, Donostia nortasun bakoa jokaleku perfektua da Saizarbitoriarentzat. Urrunegi gabe, *Martutene* eta *Lili eta biok* nobelek, horiek biek bakarrik, errealismoz erakutsitako geografia bat sortzen dute gure narratiban inork, nik dakidala behinik behin, horren ondo sortu ez duena beste inon. Ramon Saizarbitoriarekin Donostia literaturahiri bihurtzen da. Bilbon, Arestiz geroztik, ez da halakorik eratu.



"Politika aldatzen da, Artea betirako geratu", 26 x 19 cm. 1985



Eta hala ere, azken hamar urteotan, Bilbok jarraitu du agertzen idazleen obretan, kasu batzuetan oso zeharka eta beste batzuetan zentralitate batez: Jimu Iturralde, Katixa Agirre, Fermin Etxegoien, Itxaro Borda, Danele Sarriugarte, Andoni Urzelai, Iñigo Astiz, Jon Alonso, Jon Arretxe, Gotzon Barandiaran, Irati Jimenez eta seguru ahazturan gelditu zaizkidan beste batzuk.

Nik neuk Arretxe, Barandiaran eta Jimenez azpimarratu nahi ditut.

Hiru autoretan Bilbok berebiziko garrantzia du, zentralitate bat. Baina, gainera, hiruren obretan ez da Bilbo bakarra existitzen, bi baizik gutxienez: eutopiaren eta distopiaren arteko pultsoa agerikoa da.

Eta hiri hori ere bada hiri hau.

Barandiaranek bi nobela ditu, *Errotik* eta *Gidariaren okerra*, eta bietan Bilbo da jokalekua. Lehendabizikoan, gainera, pertsonaia dela esan liteke.

Kronotoposa dualismoari begira dugu horretan. Batetik, laurogeiko hamarkada Euskalduna ontziolan, non pertsonaiek Gabriel Aresti hizpide duten behin eta berriro; bestetik, Guggenheim museoa, hiri berriaren sinbolo mehatxugarria.

Badio Lore pertsonaia nagusiak: «*Euskalduna desagertu eta gutxira minbiziz gaixotu ziztaigun aita*». Badirudi ahanzturara kondentzen gaituen hiri berri aratza dela minbizia.

Protagonistak Bilbo distopikoari aurre egin nahi dio, sinbolismoan gainera, Guggenheim museoan buruturiko ekintza baten bidez, non Picassoren *Guernica* artelana eta Euskalduna ontziola buruz-buru ageri diren.

Hiri biak parez-pare jartzeak eta baten aldeko borroka egiteak itzulera bako bidean alderaitzen dute Lore. Hiri fetitxearen aurka borrokatzeko erabakiek erbeste batera bidali dute non, Loreren beraren hitzetan, jende guztia ezlekutarra den. Hiri berriaren aurka matxinatzeak besterria dakarkio. Baina ordurako Bilbo bera bilakatu da besterri. Eta zalantzarik balego, urrutitik Lorek: «*Postal hauek begiratzean, Bilbo bere iraganaz lotsatzea lortu dutela iruditzen zait*».

Geroago ikusiko dugunez, Fermin Etxegoien *Autokarabana* eleberriaren narradorearen ikuspuntua oso besterik da, baina hari ere, agorafobiak gerarazia, gogora datorkio Dubai emiratoan sortu duten uharte artifiziala.

Jon Arretzek ez dio eraispen industrialaren ondorengo aldaketa diseinuzkoari zertan begiratu hiri ezkonezin bi topatzeko.

Azken lau urteetan, beste horrenbeste nobela kokatu ditu hirian, nobela beltzeko saga moduan: *19 kamera*, *612 euro*, *Hutsaren itzalak eta Estolda jolasak*, lehen hirurak batez ere. Arretxe, Bilbo Zaharreko literatura-kartografia bat osatzen saiatzen ari da. Oraindik orain, Touré de-tek-tibearen ibilbide literarioak antolatzen hasi da San Francisco auzoaren inguruan.

Arretxeren nobela hauetan bi protagonista nagusi daude. Batetik, Touré. Burkina Fasokoa, galtzailea, ez dio ezetz esaten lantzean-lantzean kolokatzeari edo mozkortzeari, ezkondua, ederra da eta bere gorputz desiragarriak hiriko emakumeak eta gizonak zorarazten ditu: Cristina, Rosario, Txaro, Enare, Xuxu, Marisa, Alazne, Amaia, Iratxe, Uwa, Lupe... Esan genezake Touré Bilboko Mike Hammer dela. Umorea alde batera, paisaiaren osatzeari dagokionez, Tourék hiri bat erakusten digu, Faustino Iturbek *Lili eta Biok* nobelan egiten duen modu beretsuan, ibiltzen, galtzen, promenatzen, murgiltzen, harremanen bidez. Arretxek, gainera, elementu inportante bat sartzen du bere nobeletan: kontrol panoptikoa. Eta kontrola narradore ere bilakatzen zaigu. Bigarren ahotsa. Tourék, lehen pertsonan, eta poliziaren kamerek, hirugarren pertsonan, sortzen dute geografia. Touréren subjektibitatea eta kameraren irudizko objektibitate uestzkoa. Horrela sortzen da paisaia Arretxeren nobeletan.

Bigarren pertsonaia hiria bera da, Barandiaranek egin lez. Edo zehatzago esanda, hiriaren zati bat: San Frantzisko kalea eta ingurua. Afrika Txikia, Tourék deitzen dionez. Beste zatia, Bilbo Zuria, kontraposizio moduan azaltzen da gehienbat. Adibidez, lehen hiru nobeletan Ledesma kalea bakarrik agertzen da Bilbo Zuriko jokaleku moduan. Ledesma, botere politiko eta ekonomikoaren sinboloa da.

Afrika Txikia eta Bilbo Zuria. Hiri hori da hiri hau.

Arretzek nahita mugatzen du geografia Bilbo Zaharrera. Bilbo Zuria ez-leku baten gisa agertzen zaigu, leku bat non Touré nekez ibil daitekeen, horregatik ez da leku. Julio Cortazarren aipu hura dator burura: «*Un puente es un hombre cruzando un puente*». Kurioski, Bilbo Zaharra da zubi gehien dituen gunea Bilbon: lau zubi auzo txiki baterako. Zeharkatu ezean ez da zubi. Bigarren nobelaren kontrazalean gaztigatzen gaituzte: «*Nobela Euskal Herriko ghettorik handiengan kokatuta dago*». Ni neu Hazparnekoa banintz, beldurtu egingo nintzateke hau irakurrita. Canal Bizkaiaren erreportaia hura gogorarazten du: «*San Francisco, ciudad sin ley*». Beste muturrean, berriz, dago honako hau, Bilbao Historiko erakundeak zabaldua orain hilabete luzea: «*Disfruta tu aperitivo en el Bilbao más cosmopolita, multicultural y colorista, hoy con todos los arroces del mundo en San Francisco*». Ez da broma.

Orduan, paisaia ghettoa ala paisaia dibertsitate kosmopolita koloreanitza?

Hiri hori da hiri hau.


Irati Jimenezen obra bide beretik dator. *Nora ez dakizun hori* nobelak badirudi esan nahi digula Bilbok ez dakiela nora edo, bestela esanda, «*ez duela jakin nahi nondik datorren*».

Baina da *Atsekabe zaitut* nobelan non, gainera, Bilbo pertsonaia bilakatzen den.

Eta Barandiaran eta Arretxerenean bezala, honetan ere ez dago Bilbo bakarra. Gutxienez, bi daude. Bilbo eta Katu Kale. Errealitatea eta fantasia. Errealitatea nahiko sinestezin bihurtu zaio idazleari; eta fantasia egokia da paisaiak murreraino eramateko.

Bilboren baitan dago Katu Kale. Denok ikusi ezin dugun Bilbo bat, ezezaguna zaigun hiria, ezkutua. Bilbo paralelo bat, edo Bilbo paralelo batzuk. Jimenezen beraren esanetan, «*oraindik existitzen dira Bilbo paraleloak Bilbo erdi Miami Vice bonen barruan*».

Ematen du idazleak gogorarazi nahi digula azkenean geure fikzioa sinistu dugula. Guztiok ikus dezakegu hiri fetitxea baina katu izanda



"Garcia Salazar 16, hirugarrena", 40 x 28 cm. 1990

bakarrik ikus dezakegu hiri iluna, non speed goizak dauden (aitaren liburuari keinu, noski).

Emitza zoragarria da.

Azkenik, hona ere ekarri beharra dago Iñigo Astizen *Ezezagun zaizkidan gauzak* poema, *Harririkadie*-n ere baduzuena. Poema Bilbon zeharreko promenade moduan antolatzen du. Aretxaga kalean hasi, Martzana, Olabarria, Baroja, Euskadi plaza, Guggengehim, Iberdrola... Poetak, Bilbok sortzen dion desasosegua adierazten du zalantza-zen ideia horrekin, alegia, noraez bat. Gogoetatsu abiatzen da: «*Lanerako bidean desbideratuta zure sortetxe aurrean pasa naiz eta kalkuluak egin ditut asmatzeko zenbat Gabriel Aresti Segurola behar diren hiri bat salbatzeko*». Eta aurrerago: «*Aleman barkua atrakatu da Abandon, turistak. Noiz-behinka gogo sortzen zait neure buruari postal bat igortzeko: nik ere gogoratu behar dudalako hemen (ere) posible dela bizitza*». Eta aurrerago: «*Ez dakit zein den kopurua Bilbo salbatu abal izateko Bilboz*».

Bide batez, Iñigorekin izan nintzen orain astebete Eako Poesia Egunen aurkezpenean. BBK Live jaialdiaren lehen eguna zen, eta El Correo Españolek albiste nagusia eskaini zion ebentoari. Eta izenburua neurrikoa: «*BBK Live: El triunfo de la clase media*». Klase ertainen garaipena. Paisaia. Zorionez, ez naiz kazetaria.

Azken hogeita bost urtean ikusi dugu eutopia krisalida zela eta egun Bilbo tximeleta dela. Edo nahi baduzue, hurbilagoko sinbologian, txakur atsegin bat («*txakur ergela*», *Autokarabana*-ren narratzailearen hitzetan). Puppy txakurrak, eta ez diot nik, Jeff Koonsek baizik, Puppy-k klase ertain horien garaipena besarkatzen eta bedeinkatzen du. Eta haren loratze zikliko etengabeek erakusten dute zein oker dabiltzan idazleak, zein oker ibili diren, garen. Puppyk frogatzen du idazleek porrot egin dutela. Eta haien ahalegin antzuan atopia bat garatu dutela. Eta zein da atopia hori? Atopia hiriarekiko frustrazio sentimendua da, gaizki sentitze bat, zeren eta hark, hiriak, ez baitu ordezkatzeko euren nahia, idazleen utopia. Puppyk diosku idazleak ezin batean dabiltzala, noraez batean. Puppy-k diosku literaturak, are literatura engaiatuak, bustiriko sutautsa baino gutxiago balio duela.

Baina batez ere gogorazten digu Bilbo irrealia baino Bilbo errealagorik ez dagoela.

Gogorazten digu Bilbo gezurrezkoa baino Bilbo benetakoagorik ez dagoela.

Alegia, hiri hori ere badela hiri hau.

Guretzat Bilbo benetakoa Arestirekin hasten da. Bilbo bera hasten da harekin euskarazko letretan, alegoriatik poesia sozialera engaiamenduaren bidean.




Orain arte zeharbidez baino ez dut Aresti aipatu. ABBA entzun dugu hasieran. Suedia Abba da. Londres, Dickens; Paris, Balzac; Dublin, Joyce; Donostia, Saizarbitoria. Eta Bilbo, Aresti. Hogei laguni galdetu diet Bilbo idazle bakar batekin identifikatzeko eta guzti-guztiek Aresti hautatu dute. Ehun lagunekin egin nahi nuen, baina zertarako. Berrogeita bat urte joan dira hil zenetik, eta hala ere Bilbo Gabriel Aresti Segurola da euskarazko unibertsoan.

Lantzean-lantzean hura hiltzeko gogoia sortzen zait. Terrorea ezarri eta kalitu.

Aldiz, ez ote gaituen zonbiak etengabe hiltzen eta desagerrarazten.

Gianni Celatti hizpide, deusik gogoratu nahi ez dutenen ahotan dabil memoria. Eta Aresti haien ahotan zein gomutatu nahi duten batzuen ahotan dago. Hiri hori ere bada hiri hau. Edozelin delarik ere, nahas-mahas, Gabriel Aresti eguna; Gabriel Aresti zumarkalea; Gabriel Aresti institutua; Gabriel Aresti euskaltegia; Gabriel Aresti ipuin-lehiaketa; Gabriel Aresti Kultur Elkartea; Gabriel Arestiren ondarea; Gabriel Arestiren inguruko ibilaldi literarioa; plaka Barroeta Aldamar kalean (Azkunak jarria); plaka Centro Gallegon eta plaka Esperanza kalean; kendu zuten Arestiren omenez Gorbeatik ekarritako zuhaitza; urtero Udal pleno-aretoan zinegotzien arteko kalapita: Unamuno ala Aresti, alegia, besteak/Bildu; orain hiru urte *Gabriel Aresti*



"Marrazki mututua", 48 x 30 cm. 2003

*Sentikaria* ikuskizuna eta disko-liburua; orain urte bi *Harri eta Herri* jardunaldiak, biziki interesgarriak; eta iaz, Adur Larrearen *Gabriel Aresti Biografikoa* eleberri grafiko zoragarria.

Instituzionalizatze ororen zantzuak eta ajeak dira, halako deseraikitze bat egiten da premiazko, ez ote den ez den pertsonaia paisaia desenfokatu batean. Erakundetzeek buenismo bat ekarri ohi dute, paisaia serafikoa.

Aresti hori ez izaki. Haren paisaia hori ez izaki.

Harri eta herri-n: *«Bera (Oteiza) oraindikan ezta euskal arimaren zolara heldu, gu itotzen garen infernu bebere honetara. Gu ezgara hemen lasai bizi. Guk eztugu zentitzen paradisu bat. Dantek ere etzun holakorik asmatuko. Hau da basatza haundi bat. Hemen aingeruen arimak ere likistuko lirake. Hemen ito egiten da libertatea. Hemen orok du bere prezioa»*.

Beraz, infernua, paisaia danteskoa. *«Danteren edade honetan, Rikardo, Euzkadi dek ene gurutzea»* idatzi zion Rikardo Arregiri auto-istri-puan hil eta gero.

Arestiren obrak sinbolismo literario eta filosofiko zabala biltzen du eta hainbat interpreta- zio sorrarazi ditu. *Maldan behera*, haste, egituran eta sinbolismoan, Danteren *Divina Comediaren* bidetik dator. Aresti jaitxi egiten da, batek daki nora, alegiazko jaistera da, seguruenik poeta bila- katzera, alegia, jendeartera egoten eta geratzen. Eta jaistera hori hiriaren gordinean esplizitatuko zaigu harriaren trilogian:

*Harri eta herri: «Hemen behean, osin ilun bonetan, Bilbao deritzan infernu bonetan. Baal, Belian, Leviatan, Bafomet, Paladin, Goteun, Asmodeo eta Berzebu dira ene lagunak».*

*Euskal Harria: «Eskribitzen badaustazu, badakizu nun nagoan, infernu labanagoan dea- bruaren agoan».*

*Harrizko herri hau «Hemen ez dago herri bat, hau da herri baten kontra altxatu eta zabal- dutako hiria». «Ez lezan deserri nere herria».*

Joseba Zulaikaren hitzetan, «*Bilbotik ez alde egin izanaz damu zen Aresti, Bilbok hil egin zuela, gorputz biburtu zuela Bilboko samin langilea, euskalduna, eguneroko bizitzarena».*

Alde egin, Zulaikak berak alde egin zuen. Hauxe antropologoaren paisaia: «*Euskaldun askorentzat Bilbo izan da gure kanporatze*

*bidaiia, gure unibertsitatea, baita gure erbestea ere. Unibertsitate, komentu, putetxe, langile, erreka beltzaren hiria zen Bilbo. Kristautasun behartua, Aranaren nazionalismo bizkaitarra, sozialismoaren borroka obreroak, ETaren martirioak... Bilbok derrigortutako desterrua ziren. Bilbo hartatik izurritetik bezala ibes egin beharra zegoen».*

Edozein dela, Aresti Bilbon gelditu zen, badakizue, «*Gorbeiarra joateko gutizia sortzen zait barrenean, bertan organizatzeko euskararen salbazioa, baina hemen geratzen naiz».*

Poeta hiriko kalearte batean gelditzen da milagro baten zain eta Bilbo literatur-hiri bihurtzen du. Berrogei urte gerogago, eutopiaren burutzean, non Arestiri barrenean sortutako gutziaren hiperboleak, gutizia letra larriz, gobernatzen duen gu guztion bizitza, desira, Transmodernismoaren funts bakarra, berrogei urte geroago, diot, mendia jaitsi da hirira, baina ez infernuetara periplo danteskoan, bidaiia seguruan baino, frankizia baten zigiluaz. *Gorbea* Alde Zaharreko Jardines kalean dagoen jatetxe-frankizia da. *Gorbea*, Amarena, Txoko Berria... kanpoaldean eta barruan karta eta zerbitzua ingelesez eskaintzen duten gune berriak, euskal identitateari keinatzen diotenak. Eta jatetxe-frankiziak ez ezik, eutopiaren ondorio gisa,

eta hiria mapan dagoenetik eta handia den horren behar handiagoa dugunetik, gaurregun hamaika idazle ere pasatzen dira urtero Bilbotik: Pamuk, Kureishi, Rushdie, Kadaré, Poniatowska, Gibson, Palahniuk, Atwood, Banville, Lobo Antunez... Michel Houellebecq bera. *Gorbea* frankiziaren parez-pare *Bizkaia Bi* taberna dago, *Petxo Lobo*. Hara biltzen zen aspaldi, bakarrik, Arriaga antzokitik etorrira kalezulo batetik, Antonio Gades, tabernako jangelatxoan afaltzen zuen bakarrik. Eta hara sartu zen une txarrean Houellebecq, kalera bota behar izan zuten bortxa neurtu batez. Amaitutakoan, nahi baduzue kontatuko dizuet anekdota.

Esan lez, berrogei urte geroago Gorbeia Bilbora etorri da kanpotarren hizkuntzen salbazioa antolatzeko. *Bilbaoko kaleak* barik, egun *Bilbaoko frankiziak* osatzen du kartografia poetiko berri amablea eta globala.

Globala, baina ez ezinbestean unibertsala.

Unibertsaltasuna badago Arestin.


Eta Oterok ere erakutsi nahi izan zigun zer zen unibertsala, eta poemari, Izagirrek euskaratu, Bilbo deitu zion:

*Gau bonetan*

*ezin dut lo hartu, eta zure teilatuak dauzkat  
gogoan,  
zure kale-artean joandako garaia datorkit  
erasoan,  
eta minduraz egiten dizut dei Madrildik.  
gomutan daukat Parisen oraindik ito egiten  
ninduela zure errautsezko zeruak  
gero jo nuen Mosku gerra hotzeko Gagarin batek  
bezala,  
eta zure lantegien suak  
argitu zituen bat-batean Kremlingo barresiak  
eta Shangaira jaitsi nintzenean  
Nerbioiko ontzietz bete ziren kaiak  
eta Habanara egin nuen began, eta ubartean  
ibili nintzen  
kopeta apur bat alboratuz.*

Oteroren Bilbo hau *Gorbea* frankiziatu guztiak baino unibertsalagoa da. Izan ere, Bilbo hiri unibertsala izan da. Esan liteke horixe dela herdoilaren tristezia, unibertsaltasunaren marka.

Egun Bilbo, beste asko lez, globala da. Miguel Torga idazle portugaldarrak esaten zuenez, globala bihurtzen den unean uzten dio unibertsala izateari. Edo haren hitzetan: «*O universal é o local sem paredes*».



"Larogeiko hamarkadaren kronika partziala", 48 x 30 cm. 2003



Bilbo, hiri lokal baina unibertsala izatetik globalizazioaren zurrunbiloan dagoen itxura kosmopolitako hiri bilakatu da. Joaquim Jordáren hitzak datozkit burura: *«Bilbao era una ciudad espléndida porque veías la historia, un proceso. Mientras que san Sebastián es una ciudad pastel, cómoda, agradable, todo lo que tu quieras, pero es bastante ridícula»*. Beharbada afera ez da horren sinplea. Baina galderaren aurrean jartzen gaitu: zer da gure hiria? Hiri lokala? Hiri globala? Hiri kosmopolita? Hiri glokala? Hiri fetitxea? Hiri ideala? Hiri erreala?

Hiri hori al da hiri hau?

Eutopia utopia izateari utzi zion unetik beretik behinik behin, ez daude Bilbo bi edo gehiago. Bilbo, Bilbo bakarra da. Geruzaz edo toleseaz osatutako Bilbo, baina bakarra. Gauzen gaineko begirada ez besterik den honetan, hamaika begiradak osatutako hamaika ikuspegi daude baina hiri bakarra.

Titaniazko Bilbo ez da existitzen, eraikitze teoriko bat da, batzuk elikatu dugun ilusio bat.

XXI. mendeko euskal literaturak bi Billboren arteko tentsioa islatu du, imaginario eutopikoa eta imaginario distopikoa, lehengo hiri zoragarria eta turistentzat diseinaturiko egungo hiria. Eta nago

hori baliagarria (baliagarria bezain beharrezkoa) izan dela, baina irudipena dut paisaia horrek ez duela gehiagorako ematen. Esango nuke bukaera heldu zaiola.

Alegia, idealizazioen bukaera. *«Nabiko nuke, dio Autokarabana-ren narratzaileak, Irenek ere barrenean sentitzea orain ikusten ari naizen hiria, museoaren aurreko Bilbo gris eta euritsu hura, dirudienez oroitzapen idealizatu xamarra bilakatzen ari zaiguna».*

Ildo beretik mintzo zaigu Danele Sarriurgarte *Erraiak* nobelan. Hiri banpiro deritzo Bilbori, beste izen bat, eta hiri hori ere bada hiri hau. Badio narradoreak: *«Ni baino zabarra-goak direnez, iragana beti hobeia izan zelako faltsukeria horrekin bueltaka dabiltza, egiatan ikusmolde ezin arriskutsuago eta paralizatzaileak makillatzeko aitzakia dena. Iruditzen zaie Bilbo ez dela lehenengo bera, are Bilbo usteldu dela, beraiek direlako aldatu direnak, usteldu direnak».*


Boza kanpotik dator. Eta kanpotik ere badator, periferiatik, iparretar euskalduna eta emazteki lesbiana den heinean, Amaia Ezpeldoi detektibearena. Itxaro Bordaren *Jalgi badi plazara* Bilbon nagusiki kokatutako pop estiloko *road* eleberria da.

Ezpeldoik lehen-lehenik paisaia aurre-Guggenheim batera garamatza. «*Bilbo by night aztal-katzen genuen, bordinenaren mugetan*».

Ez zaigu, ordea, iragan-minaz ari, iragan-miraz baizik, zeren ez al da oroimena iraganaren miratzea?

Amaia Ezpeldoi miretsita dago begien aurrean duen hiriarekin. Badio: «*Tranbiaren linea zoragarri zitzaidan. Halaz, Nerbioi ibaiaren ertzetik gindoazela, garai batean eztabaidatutako Guggenheim eraikuntza miretsi nuen eguzki arraioekin jostari*». Ikertzailea hiria aspaldi zapaldu gabea da baina badaki, ondo jakin ere, non dagoen. «*Euskal kulturaren ezkerreko abarra ibardoki zitzaion Guggenheim proiektuari, diru guztia luxuzko xede horretan gastatuko eta eguneroko kulturarentzat pilixkarik ere ez zela geldituko deitoratuz. Nik balaber, besteen antzera, salatu nuen Guggenbeimen eraikuntza, baina urteak joan ahala gustatzen zitzaidan, noiztenka bertan erakusketa baten mirestera etortzea ene Iparralde zulotik. Frank Gerbyren titaniozko egoitzak salbatu zuen Bilbo industria egituren erraustearen zepoan behera erortzetik*».

Amaiak argi uzten digu bera ez dela Puppyrekin edo Ramon Rubialekin *selfie* bat ateratzera etorri. Busti da. Iritzi bat bazuen eta denborarekin, iritiziz beste egin du. Ez du museoa mehatxu moduan ikusten, baina,



"Hiri Moderno eta hitzailea", 48 x 30 cm. 2003

esan lez, badaki oso ondo non dagoen eta zein momentutan bizi den: «*Denborak aldatu ziren, kamarada! Itxura nagusi zen garaietan ginauden jadanik. Ninikak mukuru beteak desiratzen genituen, ekintzak, geldiune gabetasunak, bestela dirua gibelera itzultzea bortizki exijitzen genien espektakulu bizidunen antolatzaileri*».

Desira eta ikuskizuna. Baina hiri hori da hiri hau. Eutopiaren burutzea da. «*Richard Serraren altzairuzko bi pieza astunen erditik pasatzean*», kontatzen du Amaiak, «*ilunperik ilunenean, musukoi, ezpainak juntatu zitzaizkigun. Bat-batean, bizitza osorako haren aldean egotea baizik ez nuen desiratzen. Bilbon bizitzea? Zergatik ez, gure hiririk hiriena zen eta hiria izanez, bizitza baldintzatzen baldin bazuen ere, bizitza bere zabaltasun bakartian balizkoitzen zuen. Bilbon, Carmenekin, hiritartasuna berraurkitzen nuen*».

Amaia Ezpeldoik, Krensek lehenego eduki zuen bezala, une epifanikoa du museoan eta maitasunaz jabetzen da. Ironia dario baina ez dago zalantzarik hiria, hiri hori, beren hiririk hiriena dela.

Iaz Katixa Agirrereren *Atertu arte itxaron* argitaratu zen, *road* eleberria hura ere. Ez dakit kasualitatea den edo keinua den, Agirrek JK koktelarian kokatzen ditu bere pertsonaiak

Bilbora ailegatzen direnean. Atxagak, *Euskal Kulturari buruzko Alfabetoan* J eta K letrak uztartu zituen. JK. Eta gogoia Iturriza kaleko JK koktelaria berera joan zitzaion, orain urte batzuk itxita.

Zirkuluaren abiapuntura itzultze sinbolikoa, beharbada horren agerikoa eta sinbolikoa eta fetitxe ez den Bilbo baten alde.

Taberna bat ez da leku txarra promena-dari bukaera emateko. Gu geu bezala pasieran ari zelarik, Sena ibaiaren ertzean, Ruben Dario poetari zera etorri zitzaion burura: «*Parisen bizi gara, baina Parisek ez gaitu ezagutzen*».

Paris hori ere bada Bilbo hau. Arestiz geroztik, Bilbok oraindik ezagutzen ez duen Bilbo literario bat, xumea nahi baduzue, azaleratu da.

Imaginario sinboliko eta literario desberdinen arteko tentsioak Bilbo bat agertu du.

Literatur-hiria? Ba, ez dut uste. Ez dut uste nahikoa denik, baina hori beste gauza bat da. Gainera, zenbat balio du gaurregun literatur hiri batek?

*Irakurtzen da literatur-hiriari dagokion zati ironikoa Viajar bidaia-aldizkarian*

*«Desde el año pasado el City Museum de Estocolmo organiza el Tour Millennium, en torno a la trilogía homónima del escritor sueco Stieg Larsson.*

*El tour dura dos horas y cuesta 100 coronas suecas (cerca de 10 euros). Nos transportará a la casa de Mikael Blomkvist, la revista Milenio, el apartamento de Lisbeth Salander y muchos otros lugares que se reconocen en los libros.*


*En cambio, si queremos realizar el recorrido nosotros mismos podemos aborrarnos unos euros comprando el “Mapa Millennium”. El mapa se puede comprar en las oficinas de turismo de Estocolmo y cuesta 40 coronas (unos 4 euros).*

*La ruta Millennium ha sido nominada a los premios “TRIP Global Award».*

*Take a chance on me berrero*

Lutxo Egia

EA 2016-07-16




"Louis Aragonen Chambres". 48 x 30 cm. 2003





"Arima berba esan eta Arima agertzen da", 38,5 x 24 cm. 1990



zaldiarri·8